ANGELUKO IKASLEAK
OSOGUNEKO ERAKASKERA
2001-2002 IKAS-URTEA

# HOGOITA SEIGARREN ERAKASPENA



## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1) Nork erabaki zuen mus partidaren egitea eta noiz?
2) Nor ziren ari? Anartean Haurrek zer ari ziren?
3) Nor arizan ziren pilotan? Zuen ustez Behaxtegi zer zen?

## (II) Senpere Elizako bestak. OIHANALDEKO BASKARITIK. LANDA -4-

—"Hots, Mañifikateko bederen behar diaguk elizarat, Jon Doni Petri egunean. Mus partida bat beraz berchala, gu, aita-semeak, aitatxi-osaben kontra. Bazaiztea?... Marie, kenatzu[24] puska hauk mahain gainetik, eta kartak hunarat, berchala!"

Eta muscan hari ziren, Thomas eta Piarres alde batetik, aitatxi eta osoba bertzetik. Haurrak jauzteka atheratu ziren kanporat, aitatxi-amatxiek eman sosekin jostatu beharrez, sos hek eltze-itsu gorrietan eman baino lehen. Bazkaltiar emaztekiak jarri ziren aldiz supazterrean.

Bezperak ondoan, mundua bildu zen errabotearen inguruan. *Leoniz* eta *Puxant* ari ziren *Dongaitz* bi anaien kontra. Partida bat ezin gehiago ederra. *Behaxtegi* eta bertzeak han ziren, bethi bezala beren urruñar pilotarien alde diruz hanpaturik ethorriak. Diru [illegible]agorekin oraino itzuli behar ziren etxerat, ezen bost kintzez[25] joan[26] zuten dongaitztiarrek...

Partida bururatu orduko, harhesiaren gainean xutik, bi gizon eman ziren kantu errepiketan: *Ganix* eta *Matxin* persuka. Eta, berchala jendea trumilka bildu zitzaioten aldera, loria bat begietan.

Jaun merak hitz bat gora gora erranik, kapelua eskuan, boz goxo batean, jadanik hasia zen Ganix:

*Jaunak, hean guziak gure aditzera,*
*Eskualdunak koblaka hemen entzutera...*
*Jaun Merak hola nahiz, noa erraitera*
*Arnoa baino hobe nola zautan Ura.*

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Behar diaguk elizara 32. Bildu zitzaioten
33. Noa erraitera 34. Nola zautan ura

### 31. UKAN. Conjugaison familière.

Indicatif Présent

| C.D.S. A homme | C.D.S. A femme |
|---|---|
| Nik diat = je l'ai | N. dinat = je l'ai |
| Hik duk = tu l'as | H. dun = tu l'as |
| Zuk duzu = vous l'avez | Z. duzu = vs l'avez, vars objet |
| Harek dik = il l'a | H. din = il l'a |
| Guk diagu = ns l'avons | G. dinagu = ns l'avons |
| Zuek duzue = vs l'avez | Z. duzue = vs l'avez. s. objet |
| Heiek die = ils l'ont | H. dine = ils l'ont |

| C.D.P. A homme | C.D.P. A femme |
|---|---|
| Nik ditiat = je les ai | N. ditinat = je les ai |
| Hik dituk = tu les as | H. ditun = tu les as |
| Harek ditik = il les a | H. ditin = il les a |
| Guk ditiagu = nous les avons | G. ditinagu = nous les avons |
| Heiek ditie = vous les avez | H. ditine = ils les ont |

### 32. IZAN. Régime Indirect. Indicatif Imparfait.

SINGULIER Hura zen = il était

| | | |
|---|---|---|
| Hura (lui) zitzaitan | (à moi) | = il m'était |
| zitzaizun | (à vous) | = il vous était |
| zitzaion | (à lui) | = il lui était |
| zitzaigun | (à nous) | = il nous était |
| zitzaizuen | (à vous) | = il vous était |
| zitzaioten ↔ zitzaien | (à eux) | = il leur était |

Ni nintzen = j'étais

| | | |
|---|---|---|
| Ni (moi) nintzaizun | (à vous) | = je vous étais |
| nintzaion | (à lui) | = je lui étais |
| nintzaizuen | (à vous) | = je vous étais |
| nintzaien | (à eux) | = je leur étais |

### 33. JOAN = Aller Indicatif

| Présent | Imparfait |
|---|---|
| Ni noa = je vais | N. nindoan = j'allais |
| Hi hoa = tu vas | H. hindoan = tu allais |
| Zu zoatzi = vous allez | Z. zinoatzin = vous alliez |
| Hura doa = il va | H. zoan = il allait |
| Gu goatzi = nous allons | G. ginoatzin = nous allions |
| Zuek zoazte = vous allez | Z. zinoazten = vous alliez |
| Hek doatzi = ils vont | H. zoatzin = ils allaient |